



1. AKTA

TOKIKO GOBERNU BATZARRA, 2008ko urtarrilaren 25ean izandakoa.

TOKIA: Pasaiako hirian eta bertako udaletxean.

DATA: Bi mila eta zortziko urtarrilaren hogeita bostean.

BERTARATU DIRA:

Ander Poza Olabide j.
Iñaki Garmendia Agirregabiria j.
Edurne Baztarrika Bilbao eta
Obdu Lorenzo de Dios a.

Burua:

Maidier Ziganda Población, alkatea.

Lehenengo deialdian, Maidier Ziganda Población alkate andrea buru dutela eta Joseba Belaustegi Cuesta udal idazkaria bertan dela, goian aipatutako zinegotziak bildu dira, Tokiko Gobernu Batzarraren bilkura egiteko. Alvaro Ricón Rivera jaunak bere ezin etorria justifikatu dute.

Tokiko Gobernu Batzarra legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela egiaztatu ondoren, lehendakariak, 13:00etan bilkurari hasiera eman dio, eta gai-zerrendako puntu hauek aztertzeari ekin diote:

1.- Aurreko batzarreko akta irakurri eta onartzea: 14. akta, 07-12-14koa.

Bertaratuek goiburuan aipatutako akta aztertu dute, eta Tokiko Gobernu Batzarrak onartzea erabaki du, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez, eta akta hori dagokion Akta Liburuan jasotzea.

2.- Kontu eta fakturen zerrenda: 16/07.

Gobernu Batzordeak, bertaratu diren zinegotzi guztien adostasunez, honako kontu eta fakturak onartzea erabaki du:

16/07 zka.



Zenbatekoa: BEDERATZI EHUN ETA HAMAR MILA HIRUREHUN ETA HAMABOST EURO ETA BERROGEITA HAMAR XENTIMO (910.315,50 euro).

3.- 2. Obra ziurtagiria. “Antxo Iparra urbanizatzeko lanak C-2 eta C-3 faseak – Maiatzaren Lehena kalea”.

Gobernu Batzordeak, bertaratu diren zinegotzi guztien adostasunez, honako ziurtagiria onartzea erabaki du:

2. zenbakia.

Obra: "Antxo Iparra urbanizatzeko lanak C-2 eta C-3 faseak – Maiatzaren Lehena kalea”.

Enpresa kontratista: CONSTRUCCIONES OTEGI-GAZTAÑAGA

Obra-zuzendariak: Pedro Idarreta Lapazarán (Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniari.), Asmatu, S.L., Juan Carlos Lapazarán Izargain (Arkitektoa).

Zenbatekoa: EHUN ETA HAMASEI MILA SEIEHUN ETA LAU EURO ETA XENTIMO BAT (116.604,01 euro).

Honako xedatutik ordainduko da: indarrean dagoen aurrekontuko X-770/07.

4.- Ordaintzea Pasai Donibane Koxtape A.E.ari bere lokalak eraiki eta egokitzeko lanak finantzatzeko gordetako zenbatekoa.

Aurreko Tokiko Gobernu Batzarrean, 2007ko azaroaren 16koan, gai hau mahai gainean geratu zen. Koxtape Arraun Elkarteak eta Pasaiako Udalak sinatutako Hitzarmenarekin espedientea ixtekotan. Hitzarmen honek jasoko ditu Elkarte honek beregain hartu behar dituen betebeharrak, Pasai Donibane Koxtape, A.E.ko lokalak eraiki eta egokitzeko jasotako 20.000 euroko diru-laguntzari dagokionez.

Udalak eta Pasai Donibane Koxtape Arraun Elkarteak sinatu beharreko Hitzarmenaren inguruan, Arraun Elkartearen lokalak eraiki eta egokitzeko lanak zati batean finantzatzearen inguruan alegia, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunarekin honako hau

ERABAKI DU

LEHENENGOA.- Onartzea aipatutako Hitzarmena, Udala eta Pasai Donibane Koxtape Arraun Elkartearena, Arraun Elkartearen lokalak eraiki eta egokitzeko lanak zati batean finantzatzeko.

BIGARRENA.- Ordaintzea Pasai Donibane Koxtape Arraun Elkarteari 20.000 euroko dirulaguntza, indarrean dagoen aurrekontuko “06-781-452-10-01 Koxtape dirulaguntza” kontu-saileko A-1166/07 baimendutik.

5.- Akats materiala zuzentzea 07-9-14ko aktaren (11.akta) 9.puntuan.

2007ko irailaren 14ko Tokiko Gobernu Batzarrean hartutako erabakian akats materiala aurkitu dugu, zehazki Araneder 2.06.01 (S1) Egikaritzta Unitatearen birpartzelazioari buruzko 9. puntuaren erderazko testuan. Horiek horrela, eta azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 105.2. artikulua arabera, Tokio Gobernu Batzarrak, bertaratu diren zinegotzi guztien adostasunez, honako aldaketa hau egitea erabaki du:

Ondokoa dioen tokian:

Parcela 2: residencial de edificación abierta, de 480 m² de superficie, con forma rectangular de 40 x **13 m**, paralelo al vial actual existente. Linda por todos sus lados con la finca arriba descrita; en su lado Sur se ubica la calle Bidasoa.

Ondokoa behar du:

Parcela 2: residencial de edificación abierta, de 480 m² de superficie, con forma rectangular de 40 x **12 m**, paralelo al vial actual existente. Linda por todos sus lados con la finca arriba descrita; en su lado Sur se ubica la calle Bidasoa.

- Gai-zerrendatik kanpo eta bertaratutako zinegotzi guztien aho batez bertan sartzea berretsi ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hauek hartu ditu:

6.- Kontu eta fakturen zerrenda: 17/07.

Gobernu Batzordeak, bertaratu diren zinegotzi guztien adostasunez, honako kontu eta fakturak onartzea erabaki du:

17/07 zka.

Zenbatekoa: BERROGEITA BEDERATZI MILA SEIEHUN ETA LAUROGEITA HAMAZAZPI EURO ETA HOGEITA BI XENTIMO (49.697,22 euro).

7.- Inauteri jaiak direla eta 2008ko gastuentzat aurrerapena.

2008ko Inauteri Jaiak direla eta Barrutietako Jai Batzordeek hainbat jarduera bultzatzeko, Alkateak 2008ko urtarrilaren 24an egindako proposamena aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez



ERABAKI DU

Lau barrutietako Jai Batzorde bakoitzari 1.900 € ematea.

Hau guztia indarrean dagoen udal aurrekontuko A-14/08 Baimendutik ordainduko da.

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 13:30etan amaitu da bilkura. Bertan eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, nik, behin-behineko idazkariak, akta hau egiten dut alkatearen oniritziarekin.